

#### 4. DIRU ITURRIAK

Gure enpresaren diru sarrera nagusienak 2 iturri ezberdinetatik etorriko dira:

- **Lanbidek ematen duen diru laguntza:** Lanbidek enpresak sortu nahi dituzten gazteei eskainitako diru laguntza erabiliko dugu. Taldekide bakoitzeko, gehienez, 2500€ eskaintzeko ahalmena dute; %15 gehiago proiektuan parte hartzen duten emakume bakoitzeko. (Kontutan hartu behar dugu lau ekintzaile garela eta laurak emakumeak).
- **Gure zerbitzuen salmentak:** eskeinitako kontsultak, antolatutako irteerak (gazte topaketak), yoga tailerrak eta gure aplikazioaren premium bertsioaren kontratazioak.

Aplikazioa dohakoia izango da, baina premium aukera bat egongo da zerbitzu eta atentzio gehiago eskainiko duena. Gure helburua gazteak laguntzea da, eta laguntzeko zerbitzu eskuragarri bat eskeini behar diegu.

Alde batetik, aplikazioaren dohako bertsioa deskargatuta, psikologiari eta osasun mentalari buruzko artikulu basikoak izango ditu bezeroak eskuragarri. Horretaz aparte, erlajazio ariketak, musika, estresaren kontrako jokuak eta meditatze audioak erabili ahal izango ditu. Guzti hau, mugatua eta dohakoia izango da. Bezero hauen kasuan kontsultak online eskuratu ahal izango dituzte. Online kontsulta baten prezioa 25€-koa izango da.

Premium aukera ere badago. Premium erabiliztaile guztiek lehentasun berdina izango dute, zerbitzu bera eskainiko diogu. Tip mugagabeak izango dituzte, eta hitzordu presentziala eskura ahal izateko aukera hau beharrezkoa izango da. Premium atalean hilabeteko tarifak 7.99€-ko balioa izango du, 6 hilabeteko tarifak 41.94€ (6.99€ hileko) eta urtekoak 71.88€-koa (5.99 € hileko). Kontsulta batek 50€-ko balioa izango du

Beste aldetik, aplikazioaren premium bertsioak eskaintzen duen abantailak dira burmuinaren eta gorputzaren grafikak eta argazkiak dauden atal batzuk daudela, non ikus dezakezu zer gertatzen den zure gorputzean arazo bat baldin baduzu. Halaber, aplikazioak bezeroen osasunaren jarraipena egiteko atal bat ere badu, egun bakoitzeko egutegi bat eta oharren atal bat (psikologoarena zein zuena) erabiliz.

Esan bezala, hau gazteentzako bideratutako zerbitzu bat da, diru-sarrerarik edo diru-sarrera baxuak dituzten pertsonentzako. Gure helburua psikologo pribatu bat baino gutxiagoko prezioa izatea, baina zerbitzu berdina eskaintzea. Hortarako, kostuak murrizteko hain zuzen ere, zerbitzuetako batzuk online formatuan eskeintzen ditugu.

Txangoen prezioa aukeratutako leku eta irteera motaren arabera izango da, baita parte-hartzaile kopuruaren arabera ere. Dena den, batzuetan 40€ eguneko kostua izango du pertsona bakoitzeko. Txango bi egingo ditugu hileko, egun bakarria egonda kanpoan. Prezioan janaria eta alojamendu zerbitzua barne daude. Janariari dagokionez, guk irteeren prezio totalaren 10€ erabiliko ditugu osagaiak erosteko eta denak batera egingo ditugu eguneko menuak; kontutan hartuta gure bezeroen elikadura-baldintzak (alergiak, pertsona zeliakoak, esnekien intolerantzia, eta bestelakoak.)

Honez gain, yoga tailerrak eskainiko ditugu landa etxean. 5€-ko balioa izango du klase batek (ordubeteko iraupeneko).

Ikasteetxetan hitzaldiak eskainiko ditugu, eta espero dugu 2 ikasteterekin egitea lan hilabetero. 50€ko prezioa du, hitzaldi hauen kontratazioa.

Bezeroak ordainketa egiteko bi aukera izango ditu; txartelaren bidez edo eskudiruz. Online kontsultak eta premium subskripzioa txartelaz egitea derrigorrezkoa izango da, baina kontsulta prezentzialak eta irteerak bai txartela bidez bai eskudiruz ordaindutakoak izan daitezke.

#### **DIRU SARRERAK (DS):**

|  | Prezio Unitarioa                              | Aurreikusitako kantitatea                                    | Diru sarrera totalak |
|--|---|--|----------------------|
| Lanbideren diru laguntza               | 2.500 € + %15                                 | 4 ekintzaile   | 11.500 €             |
| Aplikazioa (premium kontratazioarekin) |   |  |                      |
| ➤ Hilabete bat                         | 7,99€   | 26 pertsona  | 207.74 €             |
| ➤ 6 hilabete                           | 41,94€  | 10 pertsona  | 419.40 €             |
| ➤ Urte bat                             | 71,88€  | 4 pertsona   | 287.52 €             |
| Irteerak                               | 40€ (30€ alojamendua +10€ ekarritako janaria) | 180 pertsona urtero (9 pertsona irteerako, 2 irteera hilero) | 7.200 €              |
| Kontsultak                             |   |  |                      |
| ➤ Presentzialak                        | 50€/kontsulta                                 | 192 (4 astero)   | 9.600 €              |
| ➤ Online                               | 25€/kontsulta                                 | 336 (6 astero)   | 8.400€               |
| Yoga tailerra                          | 5€  | (4 pertsona tailerreko, 2 tailer                             | 480 €                |

|                           |     |  |       |
|---------------------------|-----|--|-------|
|                           |     | hilabetero)  |       |
| Ikastetxeetako hitzaldiak | 50€ | 20 (2 ikastetxe hilabeteen, oporrak kontuan hartuta) | 1000€ |

|                      |  |  |            |
|----------------------|--|--|------------|
| Diru sarrera totalak |  |  | 38.304,66€ |
|----------------------|--|--|------------|

Urteko datuak dira.